

Txernobyngo errektore kaltetua estaliko duen metalezko egitura kokatzeko lanak hasiko dituzte datorren astean

SARKOFAGO BERRIA

Gaitasuna

Iraupena
100 urte

Temperatura tartea
-43° minimoak **45°** maximoak

Haizearen abiadura
254-332 Km/h (hirugarren mailako tomadoa)

Baliabideak

Langileak, bertan
1.200

Gastua (proiektua)
2.150 milioi euro

Nazioak
27 nazionalitate

Erabilitako torlojuak
500.000


Denborak

Proiektua hasi
Duela **20** urte

Eraikina hasi
Duela **4** urte

Berria zaharraren gainean

1986. urtean eraiki zen sarkofagoa guztiz estaliko du altzairuzko egitura berriak. Orain arte eraiki zuten egitura mugikor handiena da. Laugarren errektoreko erradiazioa desagerrarazteko, sarkofago zaharra desegin, eta material erradioaktiboa bertatik atera beharko da. Oraindik ez dago horretarako datarik.



ITURRIA: BERRIA / INFOGRAFIA: JOXEAN APEZTEGIA


Pisua

25.000 tona




Luzera

165 metro



Garaiera

110 metro



Errail gainean
Errail batzuen bidez mugituko dute, baina, horretarako, hainbat jasogailu hidrauliko erabiliko dituzte.

Istripu larrienaren kalteak estaltzeko, historiako egitura mugikor handiena lekuz aldatzen hasiko baitira datorren astean. Lehendik eraikita dagoen sarkofagoaren gainetik joango da estalki berria, eta errektore kaltetuan dagoen kutsadura 100 urtean aireratzea eragotziko du. Horrela, Txernobyngo babeserako planaren lehen harria jarriko dute. Baina ingurua garbitzeko lehen pausoa besterik ez da izango hori, oraindik bide luzea geratzen baita kutsadura hori guztia desagertu arte.

1986ko apirilaren 26an laugarren errektorean izandako leherketa baten ostean gertatu zen Txernobyngo istripua. Hamar egun iraun zuen suteak, eta material erradioaktibo ugari aireratu zen. Hala, emari hori eteteko, hormigoizko sarkofago bat eraikitzen hasi ziren hilabete geroago. Beste sei hilabeteko lanen ostean, egun zutik dagoen sarkofagoa amaitu zuten. Baina babes neurri hori behin-behineko neurri bat besterik ez zen, 20-30 urtean erradioaktibitateari eutsiko zion euste horma bat. Metalezko egitura berria kokatzen hasiko dira datorren astean. Sarkofago zaharra «kolapsatzeko zorian» dagoenean jarriko dute, Raquel Monton Greenpeaceko kidearen arabera.

Baina ingeniariak azken urteetan izan duen erronkarik garrantzitsuenetako bat ez da amaituko laugarren errektorea estaltzen eta zigilatzen dutenean. Espero dute lan horiek 2017an amaitzea, baina, ondoren, errektore kaltetua garbitzeko lanak hasi beharko luke. Metalezko egitura berriak kutsadura kanpora ateratzea galarazteaz gain, sarkofago zaharra eraisteko lanak egiteko behar adina leku dauka bere barruan. Behin sarkofagoa eraitsita, barruan dagoen material erradioaktiboa bertatik atera ahal izango dute.

Iñigo Urkullu berriz lehendakari

Iñigo Urkullu aukeratu zuten atzo lehendakari, Eusko Legebiltzarraren gehiengo soilaren babesarekin.


Hautagaiak 37 aldeko boto jaso zituen: 28 alderdikideenak, eta bederatzita, sozialistenak.

Urkullu gehiengo osotik boto bakarrera geratu zen lehenengo bozketan. Bigarren saioan boto gehien jasotzen dituen hautagaia izendatzen da.

Indarkeria matxistaren 4.352 biktimak Ertzaintzaren babesa dute Euskadin

Genero indarkeriaren 4.352 biktimak Ertzaintzaren era bateko edo besteko babesa dute Euskadin, iaz baino 151 pertsona gutxiago. Eusko Jaurlaritzak emandako datuen arabera, 50 emakumek bizkartzaina dute (4k Araban, 28k Bizkaian eta 18k Gipuzkoan).

10.000 BIZTANLEKO SALAKETAK



Bizkaian 2.134 emakumek babesa jasotzen duten, Araban, 774 emakumek eta Gipuzkoan, 1.444 emakumek. Hiru lurraldeetan kopuruak behera egin du aurreko urteko datuekin alderatuta; izan ere, 696 ziren Araban, 2.258 Bizkaian eta 1.549 Gipuzkoan.

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak ohar bidez jakinarazi duenez, kasu jakin batzuetan, eta epailearen aginduz, erasotzaileari eskumutur elektronikoa esleitzen zaio urruntze-agindua betetzen duela ziurtatzeko. Gaur egun mota horretako 18 eskumuturreko daude aktibatuta: 16 Bizkaian eta 2 Gipuzkoan.

Gaur eta bihar, Bizkaiko Elikagaien Bankuaren bilketa

Bizkaiko Elikagaien Bankuak elikagaien bilketa berezia egingo du gaur eta bihar, 280 supermerkatutan. Aurtengo kanpainan, iaz baino saltoki gehiagok egin dute bat ekimenarekin eta, beraz, herritarrek beren dohaintzak uzteko toki gehiago izan dituzte eskura.

Elikagaien Bankuak iazko emaitza "bikainak" egonkortu nahi ditu; izan ere, 2015ean 1.000 tona elikagai bildu zituzten, eta Bizkaia eta Araba izan ziren populazioa aintzat hartuta kilo gehien bildu zituzten Espainiako bi probintziak.

Bildutako 1.000 tona horietatik 880 ohiko bilketa sistemaren bitartez jaso zituzten eta gainerako 120 tonak, osterara, bonuen bidez. Aurten, bonuen sistemari bultzada eman nahi diote. Bonuak 10, 20 edo 25 eurokoak dira eta horiei esker biltegiratze eta garraio arazoak saihestu ahal izango ditu.



KIROLAK

Bengoetxeak eta Altunak pilotak aukeratu dituzte

Oinatz Bengoetxea eta Jokin Altuna pilotariak igandean jokatu dute lau t'erdiko txapelketaren finala Gasteizeko Ogeta pilotalekuan.

Biak oso pilota ezberdinak aukeratu dituzte, halere, pozik azaldu dira aurkitutako materialarekin eta prest dira igandeko partidarako.



EGURALDIA

Giro goibela eta euria larunbatean. Goizaldean hotz egingo du, hodeiak sartzen joango dira eta euria egiten hasiko da. Euria, oro har, arina izango da eta atertzera egingo du. Temperaturek behera egingo dute apur bat. Igandean lanbro eta laino batzuekin esnatuko da eguna. Arratsaldean, berriz, giro eguzkitsua izango da. Temperaturek gora egingo dute.